



Iraunkortasunabuletina

Ostirala, 2024ko ekainak 14

Zerbakia: 13

CAMPUS BIZIA LAB

Campus Bizia Lab programaren jardunaldia: "GrAL/MALak iraunkortasunaren alde"

Campus Bizia Lab programaren esparruan, ekainaren 19an, Bizkaia Aretoan, topaketa bat egingo da unibertsitate-komunitate osoarentzat eta 2023/24 ikasturtean proiektuek izan dituzten aurrerapenak ezagutzeko interesa duten beste eragile batzuentzat. [Izena eman!](#)



CAMPUS BIZIA LAB

UPV/EHUko Aeronautikako Fabrikazio Aurreratuko Zentroa, SER katearen GIH saria

AFAZk SER katearen saria jaso du GIH sarietan, "Oparotasuna" kategorian, bere BECold teknologiagatik; izan ere, hozte kriogenikoa birziklatutako CO2rekin erabiltzen du taladrinak ordezteko (petroliotik eratorritako jariakina, mekanizazio bidezko fabrikazio prozesuetan ebaketan erabiltzen dena)

[Campus Bizia Lab-eko proiektuaren informazio gehiago](#)





UDAKO IKASTAROA

2030 Agenda lokalizatzen, lurraldeen eraldaketa eragile anitzeko aliantzen bidez

2030 Agenda da, oraindik ere, Nazio Batuetako herrialde kide guztiak onartutako agenda bateratzaile eta adostasunezkoa, eta 2030erako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzea posible eta eskuragarria da oraindik. Hala ere, mundua bere aurrerapenean geldituta dago...

Data: uztailak 4 (dohainik), [informazio gehiago](#)



THE PLANET APP

Graduko ikaslea zara eta UPV/EHUko Bizitza Iraunkorrerako Erronkan parte hartu al duzu?

Bihar bukatzen da hautazko kredituak eskatzeko epea UPV/EHUko Bizitza Iraunkorrerako Erronkan parte hartu eta 1.500 puntu lortzeagatik.

Horiek eskatzeko, [formularioa](#) bete.

ALBISTE INTERESGARRIAK

UPV/EHUK bat egin du Vitoria-Gasteizko Klima Akordioarekin

Euskal Herriko unibertsitatea (UPV/EHU) bost erakunde aitzindarietako bat da Vitoria-Gasteizko Klima Akordioari eta 2030erako ezarritako klima-neutraltasuneko erronkak lortzeko egin behar den bideari atxikitzeko orduan.

Azerbaijanen ospatuko den COP29ko Espainiako ordezkartzan parte hartu nahi duzu? Klima Belaunaldian ekimenean izena eman!

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak, Biodibertsitatea Fundazioaren eta Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoaren bitartez, Klima Belaunaldia ekimena abiarazi du berriz ere, Espainian bizi diren gazteek Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren Aldeen (COP29) hurrengo Konferentzian parte har dezaten. Konferentzia hori Bakun (Azerbaijan) egingo da, 2024ko azaroaren 11tik 22ra bitartean. Eskaerak aurkezteko epea uztailaren 10ean amaituko da.



HURRENGO EKITALDIAR

Ez galdu!

2024/06/17 - 2024/06/18. [GIHak Zientzia eta Teknologian txertatuz](#)

2024/06/20 - 2024/06/21. [KulturGest Bilbao Kongresua: ARTEA, KULTURA ETA ONDAREA: kudeaketa eta jasangarritasunerako praktika egokiak](#)

2024/09/08 - 2024/09/10. [Higher Education Summit. Co-creating change for sustainability](#)

2024/10/26. [UPV/EHUko ikasleen VII. Biltzarra. Gure Gradu Amaierako Lanek \(GrAL\) mundua aldatzeko balio dute](#)

NEWSLETTER HAU ZURE NEWSLETTERRA DA

2.500 harpidetu baino gehiago ditugu dagoeneko. Buletin honetan jasangarritasunarekin zerikusia duen edukiren bat ezagutzera eman nahi baduzu, idatziezaguzu iraunkortasuna@ehu.eus helbidera.